

# **Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea eta Estatua: politika publikoetatik haratago; aliantza estrategiko baterantz**



**Eka. 28 2024**

**Kod. E07-24**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Eka. 28 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## Azalpena

Azkenengo urteotan, Ekonomia Sozial eta Eraldaitzailearen (ESE) aldeko politika publikoak indartzen joan dira, “mono-eraikuntza estatala” ikuspegi batetik ko-eraikuntza eredu batera aldatuz. Horri esker, ESEko enpresa eta eragileen partaidetza handitzen joan da, politiken planifikazioan baita ebaluazioan ere (Vaillancourt, 2011). Gure testuinguruan, azkenengo hamarkadan ekonomia sozialaren aldeko politika publikoen bultzada eta egonkortzea eman da.

Hori dela eta, instituzio publikoak eta ESEko eragileen arteko elkarlana egiteko esperientzia berriak azaleratu dira, sostengu tradizionalatik haratago joanez. Agente politiko eta sozio-ekonomiko ezberdinen arteko aliantza estrategiko bat aldarrikatu da, Ekonomia Sozial eta Eraldaitzailea erdigunean jartzeko. Uda Ikastaro honetan, esperientzia berri hauetan oinarrituz irakaspenak atera nahi ditugu, beren erronkei buruz hausnartuz eta beste lurralde batzuetan erreplikatzeko potentzialitateen inguruan eztabaidatuz. Garapen Iraunkorreko Helburuetako bat aintzat hartzen dugu ikastaro honetan: ekoizpen eta kontsumo arduratsua.

## Helburuak

ESE eta erakunde publikoen arteko aliantza estrategikoa aldarrikatzen duten proposamen teorikoen inguruan eztabaidatzea.

Beste herrialdeetan dauden aliantza estrategikoaren esperientziak ezagutaraztea.

Euskadi mailan dauden hainbat esperientziei buruz hausnartzea, lortutako aurrerapenak eta aurretik dituzten erronkak mahaigaineratuz.

## Antolakuntza



## Lankidetz



# Programa

2024-06-28

09:00 - 09:25	<p>“Registro / Erregistroa”</p> <p><b>Luis Miguel Uharte Pozas</b>   UPV/EHU - Irakaslea/Profesor <b>Representante Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco</b>   Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco</p> <hr/>
09:30 - 11:00	<p>“Bases de una nueva alianza estratégica ESS-Estado / ESE-Estatua: Aliantza estrategikoaren oinarriak”</p> <p><b>Luis Miguel Uharte Pozas</b>   UPV/EHU - Irakaslea/Profesor <b>Andere Ormazabal Gaston</b>   UPV/EHU - Irakaslea/Profesora</p> <hr/>
11:00 - 12:30	<p>“Experiencias foráneas de alianzas estratégicas / Aliantza estrategikoen kanpoko esperientziak “</p> <p><b>Teresa Savall Morera</b>   Universitat de Valencia - Irakaslea/Profesora <b>Belén Catalá Estada</b>   Universitat de Valencia - Irakaslea/Profesora <b>Rubén Martínez Moreno</b>   IDRA ( Institut de Recerca Urbana de Barcelona) - Director del Área de Urbanismo y Transición Ecológica del IDRA</p> <hr/>
12:30 - 13:00	<p>Atsedena</p> <hr/>
13:00 - 14:30	<p>“Experiencias en el País Vasco / Bertako esperientziak”</p> <p><b>Xabier Lertzundi Asteasuinzarra</b>   Hernaniko Udala - Alkatea/Alcalde <b>Elena Herrarte Letona</b>   Gizabidea Fundazioa (Debagoiena 2030) - Koordinatzailea/Coordinadora <b>Blanca Boix Saez</b>   Ekonopolo Bilbo - Koordinatzailea/Coordinadora <b>Lander Martínez Ortíz</b>   GELTOKI Iruña - Koordinatzailea/Coordinador</p> <hr/>

## Zuzendaritza



### **Luis Miguel Uharte Pozas**

UPV/EHU

---

Luis Miguel Uharte Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizarte Antropologia Saileko irakaslea da. Bertan, Antropologia Politikoa eta Antropologia Ekonomikoa ikasgaiak irakasten ditu. Aldi berean, irakaslea ere bada 3 masterretan: Gizarte Antropologia, Partaidetza eta Garapen komunitarioa eta, Ekonomia Social eta Eraldatzailea. EHUko 'Parte Hartuz' ikerketa taldeko kidea da, non Amerika Latinako arloa koordinatzen du eta GEZKI (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide kooperatiboa) Institutuko kidea ere bada. Orain arte 24 ikerketa proiektuetan parte hartu du, ikerlerro ezberdinak jorratuz, besteak beste: ekonomia soziala, demokrazia parte hartzailea, transizio energetikoa, hezkuntza kritikoa Unibertsitatean eta garapenerako lankidetzak. Berrogeita hamar argitalpen baino gehiagoko egilea da. Azkenengoen artean nabarmenduko lirateke Ekonomia Sozial eta Eraldaitzailaren ingurukoak, Amerika Latina eta Euskal Herriko esperientziak ikertuz. ORCID: 0000-0003-1499-351X

## Irakasleak



### **Blanca Boix Saez**

---

Blanca Boix REAS Euskadiko koordinazio-taldeko kidea da. Bere jarduera-ildoak sareko enpresa-sarea indartzean eta ekintzailtza-programak eta -ibilbideak garatzean oinarritzen dira. Marketinean, Ekintzailtzean eta Berrikuntzan eta Kanpo Merkataritzan espezializatutako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua. Bere lan-ibilbidean hainbat egonaldi egin ditu atzerrian, kanpo-merkataritzako aholkulari gisa, eta irakaskuntza-proiektuak egin ditu, bigarren hezkuntzan bai unibertsitatean ere. <https://www.linkedin.com/in/bboix/>



### **Belén Catalá Estada**

---

Belén Catalá Estada (1996) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan eta Zuzenbidean graduatua da (2014-2019). Halaber, Gizarte Ekonomiako masterra (2019-2020) ikasi du Valentziako Unibertsitatean eta Ekonomia UNEDen (2017-2022). Gaur egun, Gizarte Ekonomiako doktorego-ikasketak egiten ari da (Universitat de València), eta bere ikerketa-ildoak honakoak da: gizarte-ekonomia sustatzeko politika publikoak. Hainbat ikerketa-artikulu ditu REVESCO, CIRIEC-España, Journal of Business Research eta Revista de Economía Mundial aldizkari indexatuetan. Noticias de Economía Pública, Social y Cooperativa aldizkari hainbat monografiko koordinatu ditu, eta irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza-proiektuetako kide da. Gizarte Ekonomiako Ikertzaile Gazteen Sareko (REJIES) Zuzendaritza Kontseiluko kide ere bada, eta hainbat sari jaso ditu bere ikerketengatik (gizarte-ekonomiako ikasketak onenei emandako CIRIEC sariak). Irakaskuntzaren arloan, Ekonomia Politikarako Sarrera eta Gizarte Ekonomia irakasgaiak ematen ditu Valentziako Unibertsitatean.



### **Elena Herrarte Letona**

Gizabidea Fundazioa

---

Elena Herrarte, 41 urte, Arrasatearra eta 3 umeren ama. Ikasketaz Humanitateetan Lizentziatua Mondragon Unibertsitatean, Enpresa espezializazioan. Haur Hezkuntzako Ikasketak eta Bigarren hezkuntzako Masterra ere baditu. Ibilbide profesionalean bereziki izaera sozialeko proiektu

ezberdinetan aritu da, proiektuen kudeaketa eta zuzendaritza roletan: Txatxilipurdi, Garabide, Garaion Naturartea, Bagara Herrigintzan Kooperatiba... 2019an abiatu zenetik, Debagoiena 2030 ekimenaren Koordinatzaile Nagusia da. D2030aren helburua da klima aldaketa eta bestelako erronka konplexuen garaiotan Debagoienak sakoneko eraldaketa sustatzea, sektore ezberdinetako eragile eta herritarren arteko elkarlanean oinarrituta garapen komunitarioaren bidetik.



## **Xabier Lertxundi Asteasuinzarra**

Hernaniko Udala

---

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra (Hernani, 1983) Pedagogian lizentziatua Psikopedagogian lizentziatua. Alor profesionalari dagokionez, hezkuntzaren eremu desberdinetan egin dut lan: aisialdian, hezkuntza formalean eta adingabeen babeserako sisteman. Azken honetan pasa ditut urte gehienak sistemako esparru desberdinetan lan eginez. Azken urteetan (2011-2019) Donostiako Udalaren Haurtzaro eta Familia Prebentzio Ataleko hezitzaile moduan jardun dut. Alor politikoari dagokionez, 2015-2023 legegaldian ekin nion ardura politikoari. Orduan Hernaniko Udaleko zerbitzu sozialetako zinegotzi izan nintzen. Ordura arte adingabekoen sistematik gertu izan banintzen, ardura berritik besteak beste adinekoenera gerturatzea suposatu zuen eta bakardadearen prebentziorako ekimen berriak abiatu genituen. Legegintzaldi hau izan zen baita ere ekonomia sozial eraldatzailerako gerturatzeko aukera eman zidana, udaletik martxan jarri ziren politikei esker. 2019tik gaur arte Hernaniko alkatea naiz. Legegaldi hauetan udalaren apostu estrategikoa izan da ekonomia sozial eraldatzailean oinarritzen den tokiko garapen eredua bultzatzea, herritarrekiko kooperazioa oinarri duena eta feminismoa eta jasangarritasuna zeharlerrotzat dituen.



## **Rubén Martínez Moreno**

---

Ruben Martínez Moreno IDRAko Hirigintza eta Trantsizio Ekologikoaren Arloko zuzendaria. Politika Publikoetan eta Eraldaketa Sozialean doktorea UABen (2018). Zientzia Politikoetako Masterra (UAB, 2014). Hamarkada batez, kulturaren ekonomiari buruzko ikerketa egin zuen, baita Europako eta Latinoamerikako krisi ekosozialari aurre egiteko gizarte-berrikuntzako jardunbideei buruzkoa ere. Gai horri buruzko hainbat artikulu akademiko argitaratu zuen. Graduetan, masterretan eta doktorego-programetan irakatsi du BAU, UAB, UOC eta beste erakunde akademiko batzuetan. Gaur egun, jabetza-erregimenen, ekologismoaren eta plangintza publikoaren arteko harremanak ikertzen ditu. Hainbat libururen egilekidea da: «Barcelona metròpoli-empresa» (Virus, 2024), «Hiri demokratikoak: udallerrien matxinada 15M ondorengo zikloan» (Icaria, 2019), «Barris i crisis: Crisi econòmica, segregació urbana i innovació social» (Tirant Humancrédito, 2018).



## **Lander Martínez Ortíz**

---

Lander Martínez Ortiz, Lan Harremanetan eta Giza Baliabideetan trebatua eta Enpresa Kooperatiboen eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza eta Kudeaketan diplomatua da. Geltoki Kooperatibako sozio-langilea da 2018tik. Gaur egun, Geltoki proiektuaren koordinatzailea eta komunikazio arduraduna da. Proiektu hori berrogeita hamar erakunde eta entitate sozialek bultzatu dute, eta Iruñeko Autobus Geltoki Zaharretik Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea eta Elikadura Subiranotasuna sustatzea du helburu nagusi.



## **Andere Ormazabal Gaston**

EHU Partehartuz, Irakaslea

---

Andere Ormazabal (Donostia, 1981). Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian eta Antropologian lizentziaduna eta Politika Zientzietan doktorea da, eta Partaidetza eta Komunitate Garapena (2017) eta Ikasketa Feministak eta Generokoak (2010) masterrak egin ditu, denak Euskal Herriko Unibertsitatean. EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakaslea da. Parte Hartuz Ikerketa Talde Kontsolidatuaren baitan, ondorengo ikerketa lerroak jorratzen ditu: partaidetza, herri mugimenduak eta gobernantza. Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea da.



## **Teresa Savall Morera**

---

Teresa Savall Morera (1987) Ekonomian lizentziatua (2010) eta Gizarte Ekonomian doktoratua Valentziako Unibertsitatean (2015). Gaur egun da irakasle doktore kontratatua Valentziako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko Sailean. Halaber, Valentziako Unibertsitateko Gizarte Ekonomiako masterreko zuzendarikidea da. Ikerketa-ildo nagusiak honakoak dira: gizarte-ekonomia eta politika publikoak, ekonomia publikoa (desberdintasuna eta pobrezia) eta politiken ebaluazioa. Artikuluak argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan eta liburu-kapituluetan; Valentziako Generalitateak finantzatutako bi proiektu gidatu ditu, eta Valentziako Unibertsitateak finantzatutako proiektu bat. Europako, nazioko eta eskualdeko ikerketa-proiektuen garapenean parte hartu du, baita administrazio publikoekin eta erakunde pribatuekin egindako kontratuetan ere. ORCID 0000- 0002- 7464- 7961



# Matrikula prezioak

<b>AURREZ AURRE</b>	<b>2024-05-31 ARTE</b>	<b>2024-06-28 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	40,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	33,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	40,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	40,00 EUR

<b>ONLINE ZUZENEAN</b>	<b>2024-05-31 ARTE</b>	<b>2024-06-28 ARTE</b>
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	40,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	33,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	40,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	40,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa